

## Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 74k ziurtasun osoz adierazten zuten 2019an Espainian eutanasia legez arautu behar zela

Beste % 9 arautzearen aldekoak ziren, baina ez zuten hain seguru esaten. % 8 baino ez zeuden kontra, ziurtasun osoz.

Uste duzu Espainian eutanasia legez arautu beharko litzatekeela?		
	Gazteak (18-29 urte)	Biztanleria osoa (>=18 urte)
Bai, ziur	74	76
Uste duzu baietz, baina ez zaude ziur	9	9
Uste duzu ezetz, baina ez zaude ziur	2	2
Ez, ziurtasun osoz	8	7
Ed/Ee	7	6
Guztira	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak eginga, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta (70. Euskal Soziometroa - Osasungintza)

Aurreko tauleetan ikusi ahal denez, ez zegoen alde nabarmenik gazteen iritzien eta 18 urtetik gorako biztanleria osoaren iritzien artean.

Aipatutako datuak [70. Euskal Soziometroa - Osasungintza](#) ikerketatik datoz. Ikerketa hori Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratu zuen 2019an. Gazteen Euskal Behatokiak 18 eta 29 urte bitarteko gazteen erantzunak aukeratu ditu eta Euskadiko biztanleriaren batezbestekoarekin konparatu ditu.